

II.—Juan Gorostiaga apaiz gaztearen lan eder bat irakurri da: *Relaciones entre el euskera y el sumero*.

III.—Azkue Jaunak bere lan bat irakurri digu: *Argot vasco*.

IV.—Elissalde beste lan bat Hiribañen-en *Euskaraz egia*-tik aterea.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1931-ko Azaroaren 20-an.

Euskaltzain jaun abek bildu dira: Azkue maipuru, Olabide, Eguskitza, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, Etxegarai, Elissalde eta urgazletatik Ormaetxea eta Belaustegigoitia. Otoitz egin da.

I.—Altube jaunak ekañ dizkigu eñiak darabilzkien itzak.

II.—Iztegi beñiaren lanean ekin dute auskaltzaiñak.

III.—Erabaki da: Udalak eta Aldundiak ematen dizkiguten sorozpideak datoñen urterako ukatzen baidizkigute, Alkate-Batzañarengana jo bear da.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzañaldi au.

Donostia'n, Eusko-lkaskuntzaren gela nagusian, 1931-ko Lotazilaren 21-an.

Azkue maipuru, Urkijo, Olabide, Eguskitza, Intzagarai, Altube, Lakonbe, Etxegarai Euskaltzain jaun abek bildu dira eta Ormaetxea urgazlea. Otoitzez asi da.

I.—Azkue jaunak esan digu: Alkate-batzañagana agertu dala, ta oni esan diola, aurreko batzañaldian erabaki zana. Batzar oñek bere sorospidea agindu digu.

II.—Apaiz gazte Juan Gorostiaga jaunak irakuñi digu alako bere *miscelanea* bat. Bertan esaten digu *urê* meatzaren izena dirudila. *Urê-gorri* esan oi da, erderazko *oro*, *urê-zuri* plata.

III.—Azkue jaunak bere *Modismos* irakuñi digu ta urêngo batzarëtarako beste gai batzuek utzirik otoitzez amaitu da batzaráldia.

**Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian.
1931-ko Lotazilaren 22'an.**

Euskaltzain jaun abek bildu dira: Azkue maipuru, Urkijo, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, Etxegarai eta Ormaetxea urgazlea.

Otoitz egin da.

I.—Iztegiko lanetan jardun degu asti luzean.

II.—Aita Intzak irakuñi dizkigu Aita Ikaztegietak bildutako itzak.

Besterik izan ez da otoitzez amaitu degu batzaráldia.
